

## Jaioko dira berriak

Arantxa Urretabizkaia

*Gara (Mugalari)*, 2004-10-09: 8.

Txikitan igarri nuen nire aitari gerra ondoren Ameriketara joandakoak ez zitzaizkiola, berez, miresgarriak iruditzen. Bazituen lagunak han, makina bat. Berrero Euskal Herrira bisitan itzultzen zirenean adierazten zuen hori, haietatik asko aberastu egin zirelako eta gu ez. Erraza zela Ameriketara joan eta han egun osoan ikurriñarekin bueltaka ibiltzea. Eta norbaitek gelditu behar zuela bertan, ezin zutela guztiek alde egin.

Gauza da oso berandu arte ez nituela ezagutu erbestearen nekeak eta handik egindako lanak. Martin Ugalde ezagutu nuenean, beraz, erbestetik etorri izanak ez ninduen gehiegi hunkitu. Gainera berak ez zuen berea kontatu nahi edo, gutxienez, sasoi hartan nahiago zuen besteena entzun.

Burgosko epaiketa eta gero izan zen, handik gutxira segur aski. Beasainen ipuin lehiaketa bat zegoen eta hiru ziren epaimahairako izena emandakoak: Gabriel Aresti, Ibon Sarasola eta Martin Ugalde. Eta Ibonek ezin zuen, azterketa zuelako. Gogoan dut hura zela niretzat estreinako epaile lana eta lotsa pittin bat ematen zidala zereginak. Segur aski kosta egingo zitzaion Iboni baiezko hura, baina azkenean joango nintzela agindu nuen. Hori bai, ipuinak eman zizkidanean kontatu zidan zerbait Martin Ugalderi buruz, nik nekien gutxia osatu asmoz. Besteak beste, batasunaren aldekoa zela esan zidan, eta sasoi hartan ez zen gutxi.

Halako batean, norbaitek kontatu beharko ditu batasunaren inguruan urte haietan sortu ziren tirabirak, esamesak, bengantzak, ezinikusiak eta askoz gauza gehiago. Hirurogeita hamarreko hamarkada hasi berritan eta beranduxeago ere, mundua mundu, gure artean ez zen beti senidetasuna nagusi. Orduan ikasi nuen nik letra bakar bat (h-a, hain zuzen) aski zela etsaiak sortzeko.

Bildu ginen, beraz, epaimahaikideok taberna ilun batean, mahai luzeak zituzten horietakoan. Gabrielekek egin zituen aurkezpenak eta eskatutakoa hartu bitartean ez dut uste elkarrizketa gai zehatzik egon zenik. Nola etorri ginen, ze arazo zuen trenak edo errepideak, eta antzeko kontuak izango ziren, eguraldia, akaso uda baitzirudien udaberri hark.

Handik joan behar genuen lekurako bidea oinez egin genuen hirurok Martin isilik eta Gabriel ez. Bidea ez zen luzea eta Martinek ez zuen apenas hitzik egin.

Kontatu izan balu bizitakoaren laurdena, izenburutan, oraindik ere lehiaketa epaitu gabe egongo zen. Baina ez. Martinek ez zuen apenas hitz egin ipuinak eta gu mahairatu ginen arte.

Gabrielek orri txikitan zituen idatziak oharrak, Martinek testu luzeak zituen idatziak foliotan eta nik koaderno batean hitz batzuk ipuin bakoitzeko. Gabriel izan zen hizketan lehenengoa eta Martin bigarrena. Erabakia nuen ez nuela neurerik esango besteena entzun arte, bada-ezpada, hanka sartzeko beldurrez.

Martinen oharretan, ipuinei buruzko balorapenekin batera, beste emaitza batzuk zeuden, bereziki, izena ezkutuan zuen pertsona gaztea zen edo ez. Gabrielelek arreta gehiago jartzen zion euskarari berari eta nik kontakizunari.

Aski lan nuen egunetik egunera ugaltzen eta aldatzen ziren arauak buruz ikastearekin eta betetzearekin, agindu korapilatsu horiek eztabaidan jartzen hasteko. Joera hori z zen, ordea, zabalduena. Orduan ere gehiago egiten zen hitz hizkuntzaz literaturaz baino eta sekulako eztabaidak pizten ziren hitz bat gorabehera.

Martinek, egun hartan, asko aipatu zuen literatura eta ipuinak estilo batean edo bestean kokatzen zituen, idazleak ze literatur mota maite zuen zehazten zuen.

Dena den, nire memoriak esaten dit erraza izan zela lana, laster heldu ginela adostasunera edo, behintzat, eztabaida samurra izan zela.

Lana bukatu bezain laster irten ginen kalera eta bakoitza bere etxera itzuli aurretik zerbait hartzera joan ginen. Martin pozik, ipuin asko irakurri genuelako eta batzuk gazteek idatziak zirelako. Horrekin baretu zituen Gabrielelek hainbat ipuinen maila kaskarra azpimarratzeko egin zituen protestak. Bazetozela atzetik, hori gertatuko ez zeneko beldurrez egon izan balitz bezala, azkenetakoa izateko beldurrez.

Joan dira harrezkero hogeitahamar urte baino gehiago eta ipuin haiek idatzi zituen gazteren batek izango du ipuinak idaztea maite duen seme-alabaren bat. Seguru ziurtasun horrek berotu ziola bihotza Martini gorputza kale egiten hasi zitzaionean.